

Jose Antonio Zabalaren oroimenez

Ez naiz oroitzen noiz ezagutu nuen Jose Antonio Zabala, baina ez zait ahaztuko nola berarekin aurren hitzak egin orduko neure baitan ohartu nintzen gizon argi, zintzo eta on baten aurrean nengoela. Gero, urteetan zehar, pentsamendu hori, zorionez, maiz baieztatu ahal izan nuen adiskidetasunezko gure harreman beroenetan.

Bergaran jaioa, bergarar ospetsua izan zen Jose Antonio Zabala. Bide batez esango dut, bere aurreko batena, Antonio Zabalarena, hain zuzen, dugula Tolosako Jasokundeko Andra Mariren Elizako parrokian dagoen neurri handiko margolan bikain eta ederra. Baina berriz esango dut Jose Antonio Zabala bergarar ospetsua izan zela, bera izan baitzen, besteak beste, bertako alkate eta hori dela-eta, nire adiskidearen izaera agerian jartzen duen gertaera baten berri emango dut hemen.


Abuztuko aste egun batean, arratsalde beroa zen eta ni beste tolosar adiskide batekin Aramaiotik itzultzean Bergaran geratu ginen; kaleak huts samar ageri ziren eta herria isil eta bakean zegoen. Gauzak horrela, hala esan nion neure lagunari: *Herri honetako Udaletxean norbait lanean aurkitzen baduk, hori alkatea izango duk*. Herriko etxeko atezainari galdetu genion alkate jauna bertan aurkitzen al zen eta haren baietza entzun bezain laster, Jose Antonio Zabala, bertako langela batean agurtzeko aukera izan genuen, mahukutsik eta idazmakina baten aurrean lanean ari zen jo eta ke. Hitzaspertu baten ondoren, hirurok Bergarako kale zahar eta kondairaz bete haie-tan barrena ibili ginen. Gaur egun, Bergarari, hobeki esateko Jose Antonio Zabalari, egindako ikustaldi hura oroigarri min bezala bizi dut.

Jose Antonio Zabala legegizona zen, eta horrela argi eta garbi adierazi zigun bere lan-bizitza aberatsean zehar, hain barrenean zeraman Euskal Herriko antzinako gorabehereri hautsa kenduz bereziki, baina beti gizonki eta petralkeriarik gabe, inoren iritzi desberdinak errespetu guztiarekin hartuz eta tratatuz. Horixe baieztatzen dute gutxi edo gehiago partaide izan zuten elkarte eta instituzio guztiek. Momentu zail eta batere atseginak ez zirenetan Gipuzkoako Biltzar Nagusietakoa izan zen, baina barneko iritziari muzin egin gabe, bere gizentasunezko jokabidea errespetu handiz begiratzen zioten guztiek, baita berarekin bat etortzen ez zirenek ere.

Kulturazko beste alor batzuetan ere ezagutu nuen Zabala, adiskide maitea. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearekin harreman estuak izan zituen, horren barruan Izeneko lagun edo *Socio de Numero* izan zelarik; itzal handiko gizona baina bere buruari garrantzirik eman gabe, benetako apaltasunaren argia alderdi guztietara distiraturaz. Elkarre horretan betebeharr askori erantzun zien, diruzain eta abar ere izan zen; Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen *EGAN* izeneko aldizkariaren Erredakzio Batzordeko Administrazioaile ere izan zen. *EGAN* aipatu dudanez gero, aipa dezadan, aldizkari horren urrezko ezteiak aurten betetzen direla eta benetan ospatzeko gertakaria dela aitortzera ausartzen naiz.

Jose Antonio Zabalaren idazlanen sorta aberatsetik honako hauek aipatu ditut: Nazioarteko Eusko Ikaskuntzaren Aldizkarian (R.I.E.V.) agertuak: 1989.eko aurrean alean *Gipuzkoa ante la invasión de los convencionales; aptitudes divergentes* eta 1993.eko aurrean alean *Entre el absolutismo y el Convenio de Bergara*.

Horiek guztiak horrela, ezin dugu aipatu gabe utzi, Jose Antonio Zabalak ongintzako instituzioei egindako eskaintza. Benetan kezkatu bizi zen Jose Antonio Zabala ongintzari zegokionez, atsedetik gabeko lan isilean. Espiritu aberatseko gizona zen behin ere ahaztuko ez dugun Jose Antonio Zabala. Goian bego adiskide bihotzkoa!



Jose Antonio Zabalaren Oroimenez / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Egan: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko "Boletina"-ren euskarazko gehigarria*. - Donostia : Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea. - II garaia, L (1998 3/4), p. 222-223.